



■ ZINEA

'Lasa eta Zabala', berriro

Asteburu honetan berriro jarriko dute, Biterin, *Lasa eta Zabala* pelikula. Lehenengo saioa gaur izango da, 22:30etan. Bihar, 19:30etan eta 22:30etan jarriko dute; igandean, 19:30etan, eta astelehenean, ikuslearen egunean, 16:30etan. Umeentzako, berriz, *Maia* erlea jarriko dute, bihar eta etzi, 16:30etan. ||

■ PRESO ETA IHESLARIAK

Kontzentrazioa Zinkoenean

Preso eta Iheslarien senideek kontzentrazioa deitu dute, iluntzeko 20:00etan, Zinkoenean. Leloa izango da *Gaixotasun larriak dituzten presoak etxera*. ||

■ GOIZ EGUZKI

Kale-buelta, bihar

Sasoi ederrean daude Goiz Eguzki jubilatutako ibiltzen diren bazkideak. Horregatik, bihar kale-buelta polit bat emateko zita jarri dute, 10:00etan egoitzatik aterata. ||

■ EREÑOTZU

Pelikula gaur, eta zirkoa bihar

Udazken Kulturalaren barruan, ekitaldi gehiago antolatu dituzte asteburuan Ereñotzun. Gaur 22:00etan pelikula jarriko dute. Bihar, berriz, 11:30etan, zirkoaren iturako ikuskizun ederra emango du, frontoian, Florenzio Galdinok: *Zirko loretsua*. Gainera, ondoren, eskalada saioa egingo dute, eta haur eta helduek hartu ahal izango dute parte. ||

■ GURE ESKU DAGO

Mosaikorako tiketak dendetan

Azaroaren 8an mosaiko erraldoi bat ospatzeko deia egin du Gure Esku Dagok, Donostian. Hernanitik 500 pertsona joatea espero dute. Parte hartzeko tiketak lortu daitezke Lurreko eta Oa dendetan. Egunean bertan, 5 euroren truke, aterkia eta xira emango dituzte opari. ||

■ BERRIAK MODA PASARELA

Puntako moda berria gaur Atsegindegin

Iritsi da Hernaniko udazken-negu denboraldiko moda ezagutzeko eguna. Pasarela egingo da gaur Atsegindegin, doan, 20:00etan. Hainbat deskontu eta 300 euroko balea ere zozketatuko dira.

MODA pasarela antolatu dute gaurko, Berriak, Hernaniko merkataria eta komertzioen elkarteko kide diren 17 dendek, hasi berri dugun udazken-negu denboraldi honetako moda berria ezagutarazteko.

Iluntzeko 20:00etan hasiko da pasarela, Atsegindegin, eta Shala dantza taldearen ikus-

kizuna ere izango da. Horrez gain, hainbat sari banatuko dira bertaratzen direnen artean. Sarrera doan da.

300 euro eta deskontuak

Modelo hernaniarrak izango dira herriko dendetako erropak, osagarriak eta makillaje eta apaingarriak erakutsiko d-

ituztenak, pasarela gainean aurrera eta atzera.

Hauek ikustera gerturatzen diren guztiek denda horietan gastatzeko %5eko deskontua jasoko dute opari, eta deskontu horretan bertan, 300 euroko balearen zozketan sartzeko zenbakia izango dute. Azaroan zehar gastatu ahal

izango dute diru hori, Estetika Arrosak, Nekane Edergintza, Biokbi Optika, Federopticos Hernani, Hoki Lentzeria, Valen moda denda, Distira, Bolsos y complementos Kaixo, Complementos Marna, Ilargi, Kera, Kuluska, Urrats Oinetakoak, Ibai-Mendi, Feli Dekorazioa, Oihala, eta Ikusi-Makusin. ||

■ UDALA GAZTETU HERNANI

Lehenengo saioa, gazteen beharrak lantzeko

Arratsaldeko 18:00etan jarri dute zita, Plazan. Gaurko saioan gazteek espazio publikoak edota pribatuak erabiltzeko modu eta ohituren inguruan hitz egingo dute. Beste hiru saio ere izango dira.

HERNANIKO Udalak, Aztikerekin batean, datorren urteko Gazte Politikarako lan ildoak zehazteko parte hartze prozesua jarri du martxan. Asmoa da gazteekin eztabaidatzea, dituzten beharren inguruan.

Gaur, prozesu horretako lau saioetako lehenengoa egingo da, arratsaldeko 18:00etan, Plazan. Espazioaren erabileraren inguruan ariko dira. Non ibiltzen dira gazteak? Lokaletan? Tabernetan? Kanean? Gaztetxean? Zergatik erabiltzen dituzte espazio batzuk eta ez besteak? Zer eskaintzen dute leku horiek? Eta zer falta zaie?

Beste hiru saio, beste hiru gai lantzeko

Duela bi aste aurkeztu zuten prozesua gazteen aurrean, eta gaurkoa izango da egingo diren lau saioetan lehenengoa, baina beste 3 egingo dira.



Duela bi aste aurkeztu zuten prozesua, eta gaur lehenengo parte-hartze saioa egingo da.

Hurrengoa, azaroaren 7an egingo da, Hernaniko gazteen arteko harremanen inguruan hitz egiteko. Hirugarrena, azaroaren 21ean izango da, Gazte Politika baten giltzarri edo

klabeak zein izan daitezkeen eztabaidatzeko. Azken saioa, berriz, abenduaren 5ean egingo da, kasu horretan, elkarlanean espazioen inguruan hausnartzeko.

Bilerak irekiak dira eta herriko gazte guztiei parte hartzeko deia egin zaie, azken batean, gazteei zuzendutako partaidetza prozesua delako, beren beharrei erantzuteko. ||

ANTZIOLA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI

ARRAKINAK
ITZASBIZIA
FRESKO ETA
IZOZTUAK

Kardaberaz 34
Tel.: 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 Hernani

mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

Allianz ASEGURAK

Asizura -
Istripuak -
Ioligailuak -
Etsaiek -
Komertzioak -
Enpreak -
Aidura zibila -
Finantz aseguruak -
Inbentzioak -

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 28
Faxa: 943 33 57 71

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Castilla Urbietan 7 943 552941 • Gauez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURADIA
GAUR Goizean goiz hotz egingo du, baina egunean zehar tenperaturak gora egingo du berriro, eta zeruan eguzkia izango da nagusi. Min.8°/Max.23°
BIHAR Zertxobait freskatuko du egunean zehar, baina gauean epeldu. Lainoren bat agertuko da, baina ez da euririk espero. Min.9°/Max.21° (euskalmet)

■ KRONIKA EUSKO JAURLARITZAREN DIRU LAGUNTZAK

%20 jaitsiko da Jaurlaritzak Kronikari emandako dirulaguntza

Eusko Jaurlaritzaren irizpide berrien arabera, Kronika ez da herritarrengana iristen. Aldiz, Ikertalde eta Eustaten arabera, Kronika euskaldunen %75etik gora irakurtzen dute egunero; eta erdaldunen %53tik gora.

EUSKO Jaurlaritzak 2014 urtean euskal komunikabideak diruz laguntzeko partida nola banatu duen jakin zuen Kronikak lehengo astean. Eusko Jaurlaritzak erabakitakoaren arabera, Kronikak 28.848 euro jasoko ditu aurten, aurrekontuaren %8,93a. Iaz baino 7.211 euro gutxiago. Aurreko urtean 36.059 euro jaso zituen.

Era berean, Hernaniko Kronikak aurten ez du laguntzarik jasoko Interneteko jardunari bideratutako partidan. Aurreko urteetan beti jaso izan du dirulaguntzaren bat.

Guztira, beraz, iaz baino %20a baino gehiago jaitsiko zaio Kronikari. Honen ondorioz, besteak beste, azaroan bi orriko aleak argitaratuko dira igandeetan, eta ez zortzikoak.

Irizpideen aldaketa

Diru laguntzaren ebatzenaren berri jakin du Kronikak, baina ez da oraindik argitaratu Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean. Kronikak duen informazioaren

Eusko Jaurlaritzak 70 puntutan baloratu du zenbat herritarrengana iristen den komunikabidea, eta Kronikari 5 puntu eman dizkio.

arabera, diru laguntzak banatzeko irizpideak aldatu dira aurten. Kronikak oraingoz dakiena da, irizpideetan jaso duen puntuazioa, baina ez zergatik eman zaizkion hain puntu gutxi.

Kronika debalde banatzea zigortu da

Kronika debalde banatzen da, eta Eusko Jaurlaritzaren irizpide berrien arabera, debalde banatzea zigortu egin da. Ez dago ikerketarik, euskerazko komunikabide guztien irismena neurtzen duenik. Eta horregatik, Eusko Jaurlaritzak beste

kriterio batzuen arabera baloratu du zenbat irakurtzen den. Alegia, harpidetza eta etxeko banaketa baloratu ditu gehien; eta Kronika debalde hartzea gutxien. Puntutan, 70etik 5 eman dizkio Kronikari.

Errekurtsoa prestatzen

Dobera Euskara elkarteak jakinarazi nahi du ez dagoela batera konforme erabaki horrekin, eta errekurtsoa prestatzen ari da.

Badaude azterketak eta zenbait datu demostratzen dutenak Kronika jende askorengana iristen dela. 2006 eta 2011 urteetan Ikertalde eta Eustatek egindako inkestak arabera, %75etik gora euskaldunek irakurtzen dute egunero Kronika; eta erdaldunen %53k.

Eusko Jaurlaritzarekin bildu nahian

Dobera Euskara Elkartea Eusko Jaurlaritzarekin biltzeko saiakera egiten ari da ebatzpena jaso zuenetik. ■

■ PALA

Gipuzkoako finalean gaur Hernani

Ariane Arrieta hernaniarrak Amaia Araiztegi mallabiarrarekin jokatu du gaur Gipuzkoako Txapelketako finala, aurreneko mailan. Su Berri izango dute aurrez aurre: hain zuzen, Mexikon jokaturako munduko txapelketan bigarren egin duen Maider Mendizabalen, eta Ainhoa Garmendiaren aurka. Atano Illean izango da, 20:00etan. Aurretik, 2garren mailako finala jokatu da. Bestalde, 19:30etan, mutilen arteko bi partidua jokatu dira Donostian, Alde Zaharren kontra, eta 20:30etan, kadete-jubenil mailakoak, Hernanin. ■

■ GOIZUETA

Legorretan partidua gaur, Umore Onak

Umore Ona talde goizuetarra Legorretan izango da gaur, bertako taldearen aurka jokatzeko, gaueko 21:00etan. ■

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† VICTOR AGUIRREZABALA ARRASATE

JAUNA
(Luisa Jaureguiren alarguna)
Atzo hil zen, 80 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Seme-alabak: Gemma eta José Antonio Avila, eta Edurne; bilobak: Bittor eta Xabier; ezkon anai-arrebak: Feli (†) eta Enrique Mendia (†), José (†) eta Micaela Villaroya (†), Juan (†) eta María Luisa Aramburu (†), José Cruz (†) eta Nati Garmendia, eta Isidro (†); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2014ko urriaren 24an

Helbidea: Sta. María Magdalena erresidentzia
OHARRAK: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORKETA TANATORIOAN egongo da goizeko 10:00ak arte.

IRAGARKI MERKEAK

Biologian lizentziatua behar da, fisiologiako klase partikularrak emateko. Deitu: 606 418 950

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

■ ATZEGI



Lasarten aurkeztu zuten Buruntzaldeko kanpaina, asteartean.

Elkarri on egiteko, bidali selfie bat

Kanpaina berria jarri dute martxan eta argazkiak eskatu dituzte.

ELKARRI On kanpaina aurkeztu zuen, asteartean, Atzegik; adimen urritasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak. «Asmoa da elkarri on eragitea, elkarrekin hobeto gaudela adieraztea, eta gizarte

piztea». Horregatik, kanpaina interaktiboa jarri dute martxan. Eskatu dute Atzegiko kideren batekin selfie bat atera eta elkartera bidaltzeko, pertsona horrekin duten esperientziaren inguruko zerbait

kontatuz, labur-labur.

Argazkiak bidaltzeko: whatsapp bidez 609 703 706 telefonora; facebook, instagram edota twitter (#elkarrion) sare sozialen bitartez, edota www.atzegi.org/elkarrion. ■

MODA PASARELA HERNANI

2014ko URRIAK 24
20:00 ATSEGINDEGI
SHALA DANTZA TALDEAREN EMANALDIAREKIN
ANTOLATZAILEA. BERRIAK

300 €

ZOKKETATZEN DITUGU GURE DENDETAN GASTATZEKO

DESKONTU BALEETAN

3000 €